

# LENGO ETA ORAINGO KEZKAK ZELAN DUA BIZKAEREA?

[1985 urtean, "Itxastarrak" elebarria (nobela) kaleratu nebanean Erkiaga'tar Eusebio idazle eta euskaltzale amorratuak, kritika antzera onelako lan au idatzi eban:

Ona emen liburu barrj bat. Au esaten ez da gauza andia.

Are geiago. Euskal liburu barrj ori bizkaiko berbakeraz argitaldu dala agiri jartea, meritu berezia.

Meritu berezia, gauzearen egoera, oitzat artzen badogu.

Izan be, premiñazko dogu une onetan, oraingo irakasle batek erakutsi dauan laneko estadistika edo dalakoaren komentarijoa egitea.

"Euskal kulturaren zapalketa, 1956-1981. Elkar-liburuxka". Or Txillardegik, SIADECOREn 1975 g.urteko zifrak darabiltzen: au da, orain AMAR urtekoak. Begira: Euskalerrian 2.784.320 biztanle ziran. Oneetarik euskera ekienak —ez jakin erabiltzen dabeenak— 623.301 lagun. Beraz %27,7: Euneko 23 eskas.

Liburu orretan SIADECOREn inkestako batek, arean M. Ugaldek diño: "es la población vasco parlante la que padece una mayor marginación".

Eta guk, orren buztantzat zerau geitu giñei: Oraingo aldian, euskal alorrean, idatzian eta Telebjstakoan, senjde txiro orren senitarteko mar-gi-na-tu-a bizkaieria da.

Lerro au idatzi nik, eta biaramonean, eguneroko prentsan, Karmele Errotatxek jtzaldi baten bizkai dialektorearen egoereaz "una seria reflexión" egin bear dala esan eban. Atzo bertan, maiatzaren 7-an, "Deia"n Adolfo Arejitaren artikululu mamintsu eta luzea agertu izan da, gure euskalki onen alde.

Orain eun urte, gure Erri onen barruan, euskera ekjenak %54 ei ziran. Orain, len esan dogunez, %23 murriz.

Ona emen Txillardegiren kuadru bat, orain amar urtekoa. Euskaldunak eskualdeko dakarz beste toki baten, baiña kuadru au, berba zelan egiten dauanari adi dagoana da. Au da, Euskera mintzatuari dagokiona.

Bizkaieraz berba	%37,7
Gipuzkeraz berba	%37,6
Nafarroako euskalkiz	%9,7
Baxenabarrekoz	%8,8
Lapurderaz	%4,3
Zuberoeraz	%1,9
Beraz, ona	%100

Ondorioa: orain amar urte, bizkaieraz ziardenak, 11 lagunetik lau ziran. Gomutatu daigun Deba, Elgoibar, Eibar, Plaentxi, Bergara, Oñati eta Arrasate inguruak, eta Arabako Aramaio be, izatez azken mendeetan bizkai euskalkiak dirala.

Txillardegiren berbak djtugu: "Euskara Batua erdialdeko iru Euskalki nagu-

sien arauerara erabaki da. Estadistikak erakutsi dutenez, bestalde %75-ek baino geiago onartzen du Euskaltzaindiak proposatu duen Euskara Batua. Opoziziorik andiena zaar artean dago".

Orraitio, estatistikak zeinek egin ditu?

Dana dala, beste norbaitzuen esana dala eta irakurri doguna da mingarriena. "Bizkaiera ori ondatzeaz ez da zertaz kezka jarri... orren ordeko bezela Euskara Batua geratzen baldin bada".

Ai, ai, ai... eta baldin ez bada?

Baina, berbalapiko orreri zein Aseguruk erantzungo deutse, kalean galtzen dan euskerearen orde euskeraz beste berbakera modu bat sendo, indartsu ta bizi geratu daitekena? Zein aseguruk, zein jakitunek edo sasijakitunek? Amaikatik lau euskaldun galtzen badira, kaleko meaztute ori, utsune ori, lorrin ori, zelan konpontzeko?

Kalean galtzen dan euskerea eskolatik, ikastolatik, euskaltegitik, Unibertsidadetik indartuko dalakoan?

Or dogu Irlandako erakuspen negargarria.

Askatasuna mende onetan lortu dauan erri orrek izkeran galdu egin dau. Liburu eta eskolan ikasi arren, ez dabe kalean, gizartean ez artuemonetan erabilten. Ingeles parra parra, Eta modu orretan, orri... ba doa. Latiña joan zan antzean.

Ukatu ezina dogu Euskal Telebistan lan itzala ta txalogarria egin izan dabee-na. Baiña... bizkaieriak, gure berbakereak ez dau an tokirik. Errime gortu naiz, orraiti, zuok zoririk izaten ete dozue bizkai izkerearen modu doinutsu eta soinutasunik entzuteko? Beti bat, monotono, idor samar, kukuaren kanta, golden sagarraren bardintasuna aoran, or belarrian.

AMAIKATIK LAU euskaldun galtzen ba dira, zelako anemiak ez dau joko euskera osoa? Barriro, labur:

Bizkai berbakerez	%37,7
Giputz kutsuz	%37,6
Beste guztietara	%24,7
	%100

Bizkaieria gal dadinean —kalean be urterik urtera galduz galduz doa, ez gaitezan kirtenak izan, umeak eta gaztetxuak euskaldun urietan an frantsez, emen gaztelaniaz diardue-ta—, gure euskalki au gal dadinean, Euskeraren mendebaldeko mugea Zumaia, Azkoiti, Azpeti, Zegama, Segura... eta ortatik sartalderuntz... dena gure Enkarterri bezala?

Giputzei mendeen mendetan zeinek gorde ta zaindu deutse mendebaldeko saietsa Bizkaiak eta bizkaieriak baino?

Beste oar bat, orraitio. Mintzaira mugaz ganetik be, goitik datorkioz euskerari itobearrak eta esturak. Galtzen dana Euskereak galtzen dau. Eta bizirik dirauanari ez laguntzea zer da?

"Itxastarrak". Itz onen barruan, Bermiarrak ebagi oi dabenez Its-sora joan diran, joaten diran eta joango diranen ingurua eta giroa artzen da. itsas jentea, sendi eta auzoak, guztiak itsasoaren aizeak igurtziak, aren amaibako orro apalaren oiartzunean durundipetuak. Eta kresal usalna, kresal miña...

Liburu onen egilea, euskeraz idazten sekula aspertu ez dan ondarrutarra: Augustin.

Zaartzen asia dala esaten deustan arren, oraingoan be, seiña, ume barria ekarri deusku onen lumeak euskal seaskara.

Zubikararen liburuak zenbat? Eleberriak, teatru lanak, ipuinak, olerkiak, kantak, istori gaiak, artikulua... ez jakin zenbat.

Liburu barriaren ondorik, irizleak or agertuko dira. Premiñazko dira eta betoz orduan onean. Orraitio mundua aurrera, eta beti gauza ez bardina edo barriraztasuna gura da. Pikutara joanak ei dira arako elaberria erromantikoak oituzkoak, istorikoak... kontakizun lau, apal eta jarraikoak.

Menturazko zerak azaldutea barik, kontaketearen abenturea el da kikikagarrien.

Zearkako jarduna, barruko isuri eta ikuspegiaren ugaritasuna, flashback eta sikologia... Eco idazle italiarrak bere Lan Edegian bide urratzen jardun dau abanguardismoaren zidor eta bidexkak ikasi eta erakutsi bearrez, gurlotasuna, zi mardi usaina, bitarikoak...

Orraitio Umberto Eco berak, ainbeste teoria egosi ondoren, literatura mamintsua dan bere leenengo liburu 1980 urtean argitaratu dau, italian, 48 urteetara eldu danean, eta teoria mee zorrotzak alde batera laga eta sekulako nobela lodia eskeini deutse edozeini, kontakizun dana kontaketa jatorrez burutu bear dala konturatu dalako. Sekulako liburu barrokoa da, moduetan izan be "Il nome della rosa". Sendotikak bide ertzean lagata.

Ondo da elitearentzat nobela sikologitsu eta teknikaz edo teknikakeriaz orniduz idaztea. Eta euskeraz idaztea, ta ez poliglot. Bada, orrelako lanak zeinek irakurteko, il zan amamak, Txiritxuk, ala idazleak berak bakarrik?

Eskolan ikasi ez dalako, euskeraz liburuak irakurri aal izatea neketsua da geien bat erri zeearentzat. Urri lauak euskeraz irakurten ez ba dau, berba egitean atzerantz bagoaz, irakurtean ez gara aurrerantz joango. Ez gabiz bapere txantxetan.

Liburu au irakurteko egin da. Irakurteko bape gogorik badau, "Itxastarrak" eskuan artu dagianak baizen laster jarraian ekingo deuta, sailean joango da, prosa argia, erreza, gatz-piperrez egoki maneatua dalako. Eta misterioz inguratuz.

Orriak irauli alean, aurrera ta aurrera joango da, lerroak lerro begiak jango ditu, adimenez irunsi, jakingureak zirikatu dau-ta.

Elebarria idazlearen lana da, historia bat da, ez historia bera.

Tokiko giroan eta sasoi jakiñean eratu. Txomin Agirrek arako "Arranondo" asmau eutsan toki orri. Augustinen "Ondardi" aldean sartu dau elebarri au. Idazle biok ondarrutarrak. Orraitio, lenengoa abadea, lerroetan. Zubikarai'k, oster, gatz lodia erabili daike. Eta darabil.

Iztegiaren esiak urrunagora daroaz Zubikarai'k, eta berba zorrotz, ausartiak eta latzak aukeran erabiltea dagokio, benetasun trinkoagoa emonaz.

"Realismo" giroan egin euskuzan "Kresala" eta "Garoa" Txomin'ek. Eredu onetako dogu gaurko "Itxastarrak" be,

Toki jakin onetan sustraitua da, baina orain eun urteko aroan. Uria txikiago zan, lagunak be urriago, baina mendu ta aiurri berekoa, erri zindo, zintzo, langille, bulartsu, bizigurakoa.

Nobelaren gaia eta aria ernagarriak dira. Bestalde jakingarriak diran oitura, ekandu, lan-modu, orduko estura eta gurariak, amesak eta oinazeak, maila apalean geienbat.

Augustinen nobela onetako pertsonaje nabarmena —biribilla— Edward M. Forester-en euakeraz bat da. Simon "Simon zarra". Liburuko bizitzaz orain eun urte emen bizi izan zana. Irakurtera ez ekiana, baina bizitzako zéretan, bere lan berezietan gizon aitua, arteza, adoratsua.

Kitolis aguretxoak "Kresala"-n guztiak jatortzat etsi daben kapitulu urduria berea dau.

Bestalde, orren iturrja Resurrección Maria Azkue'ren "Arrantzaleak Gran-kanton" lantxuan ez ete dagoan itandu dogu.

Liburu barri onetan, barriz, Simonek ia edapen osoa berea dau.

Nobelagilleak, nordan orren inguru, fabula ziztatzalea ta ernagarria sortu eta jaso aal izan dau.

Eta, liburuak akatsik? Ez da utseziña dan gizonik. Eta beraz, gizonaren lauak izan oi ditu. Bai. Ederlanak be bear ditu akatsak. Eta arrainak zakatzak.

Pentsamentuak zorrotzaren zorrotzez buru garunetan euki barik, alkarrizke-ta luzeetan datoz kanpora. Umore baltza textulari teknjka baserritarrez emoten deusku.

Idazlea ez da murrizt gurako, ugari aldeko baiño. Orraitio ez dau liburuak beste iñoren azalpen bearrik, asieratik amaierara ulertzeko.

Nobela bat idazte orduan, Eco-k semiotika morroskoari ostikadea emon deutsa.

Erkiaga'tar Eusebio

